

Atutxak 5 Kirol probako txapela eta Ziarrustak GRABNikoa lortu dabez

14. orrialdea

Itziar Zabalak Bloke Eskaladako Espainiako Kopa irabazi dau

Maiatzaren 11n jokatu zan Plasenciako errokodromoan Kopako hirugarren proba. Zabalak bigarren egin eban proba honetan. Fuenlabradan izandako bigarren proba irabazi eban eta horri esker Bloke Eskaladako Espainiako Kopa lortu dau. **14. orrialdea**



Arratiako Maratoi Txikiaren XL. edizinoa bagilaren 2an

15. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

318

2019ko maiatzaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Areatza Musik and Beer

Areatzako Musik and Beer, nazinoarteko musika eta bertoko garagardao artisauaren jaialdia, maiatzaren 31n eta bagilaren 1ean izango da. Musikeari jagokonean, Eskean Kristö, Arratiako taldea, eta Euskal Herriko eta nazinoarteko beste 9 talde izango dira jaialdian: Mississippi

Queen and The Wet Dogs, Los Brazos, Keylock, James Room and Weird Antiqua, The Soul Jacket, The Riff Truckers, Jared James Nichols, Paul San Martin Trio eta EuskOrleans Dixie Band, hain zuzen be. Garagardao artisauak dastatzeko aukera handia egongo da. **10., 12. eta 13. orrialdeak**



Jentilak Diman



Urte birik behineko ibilbide mitologikoa eta aurreko lehenengoz, Akelarrea, prestatu dabe Diman maiatzaren 25erako, *Jentilak Diman* mitologia ezetuten emoteko ekimenean. Bertaratzen diranak laminak, jentilak, Sugo, Akerbeltz, Basandere, Behigorri, Olenzero eta beste izaki mitologiko batzuk bertatik bertara ikusteko aukera izango dabe. **7. orrialdea**

AREATZA

Herriko komertzioa bultzatzeko kanpaina abiatu dau Areatzak

Herriko dendetan hoge euro pagauta, hogetabost euro gastetako aukerea egongo da Bono denda bonoai esker. Herriko 11 komertzio hartzean dabe parte kanpainan eta Udalak, 300 bono ipini ditu salgai. Horretarako 1.500 euro ipini ditu bonoetan, eta mila eurotik gora kanpainearen diseinu eta zabalkundearen.

Bonoak, maiatzaren 27tik bagilaren 28ra arte erabili ahal izango dira komertzioetan. **5. orrialdea**



ARRATIA

Zahartzarora landuko dabe Arratiako Andren Jabekuntza Eskolan

Maiatzaren 25ean, *Morea eta grisa: zahartzarora feminismitik eregiten* titulupean berbaldi tailerra antolatu dau Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak. Saioa, Mari Luz Esteban EHUKo irakasleak gidatuko dau. Aurretik Bea Azpiri BEGITUko kazetariak igazko abuztuan Toronton izandako Zahartzaroren gaineko Mundu Mailako Konferentziaren barri emongo dau. Datorren ikasturtean, eskolako ardatzetako bat izango da zahartzarora. **5. orrialdea**



ARTEA

Bertoko basogintzearen aldeko ordenantzea

Arteko basoetan bertoko espezieak sartzean dabezana diruz lagunduteko ordenantzea onartu dau Udalak. Baso jaubeak hektareako 1.500 euro jasoko dabez, gehienez, 3.000 euro jaube bakoitxeko. Diru laguntzok, Bizkaiko Foru Aldundiak emoten dauzan diru laguntzak bateragarriak dira.

Ikusita pinu eta eukaliptoak dakarrezan kalteak, lurren azidifikazioari eta sute arriskua gehitzeari jagokienean, batez be, basoetan bertoko espezieak sartzea bultzatu gura dau Udal Gobernuak.

Ez da norabide horretan hartutako neurri bakarra. Izan be, igaz Udalak baso batzuk erosi ebazan, bertan inork ez sartzeako pinu edo eukaliptorik. **6. orrialdea**

Literatura txokoa

ULYSSE FROM BAGDAD

Éric-Emmanuel Schmitt Frantziar jaio eta hazitako idazle ezaguna da, gaur egun Belgikan bizi dan arren. Antzerki idazle lez egin zan ezagun 90. hamarkadan baina geroztik hainbat eleberrir argitaratu dauz, non bere filosofia ikasketen errastua usaintzen dan.

Eleberrir honetan, Bagdad-en jaio dan mutil gazte baten igesaldia ezetuko dau irakurleak, Saad Saad izenekoa. Iraken jaiotea "tokau" jako, halan dino berak, berari egokitu jakona edozeineri pasau ahal jakula argi itxita. "Suerte" kontua dino. Persona non eta noz jaio garanaren arabera era batera edo bestera bizitea toketan jaku eta. Gerra eta zapalkuntza egoera

ezin jasanda, Europara alde egitea ebazten dau, mendebalderantz alde, behar egin ahal izateko, holan hangoi laguntza bialduteko. Holan ba, irakurleak bidai luze eta jasanezin bat hasiko dau personajeagaz batera. Bidean, paisaje desbardinak ezetuko doguz, Egipto lehenengo, ostean Malta eta Sizilia kontinentean sartu aurretik, Italiatik Frantziara gero, hemendik iparraldera ekinez Erresuma Batua heldzeako asmoz. Ez da baina bide erraza, ez. Abentura sano latza biziko dabe mutilak eta hainbat bidelagunek. Aurrera ekiteko dirua lortu beharra; leku batetik bestera joateko kotxe, patera, kamioi eta oinak; maitaleak eta migratzaileen

egoeraz aprobetxetan direnak, eskuzabalak eta txarrak, gizakiak eregitako mugak eta itsaso muga naturala, danerik ezetuko dau Saad.

Gizakia gizaki danetik existiduten da migrazinoa, baina azken urteotako egoera benetan larria da. Bada Schmitt-ek pentsau arazo egiten deutso irakurleari, mezu gordin eta errealak botaz. Persona orori gomendatzeko liburua, barruak asintzen ditu-eta, ondo mobidu be. Izan be, eleberrian amaieran irakurri ahal dan egunerokoan idazleak kontetan deusku zelan izan eban eragina liburu honek Belgikako politikari batzuegan, asilo eskubidean aldaketak eragiteraino. Gora ba Schmitt-en errealidade gordina eta gora literaturearen indarra.

Nerea Goioaga



Eric-Emmanuel Schmitt

Ulysse from Bagdad

Le livre de Poche, 2010

311 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 13tik 19ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 20tik 26ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 27tik bagilaren 2ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heldzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heldzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Gatxa



Esangura desbardin garrantzitsu bi ditu berba honek: lehena, osasun aldeko makaltasuna edo gaixotasuna adierazoteko erabilten dogu gatx berbea (gátxa, ahoskatuta). Batuan, gaitz esaten da. Inori kalte egitea edo norberak sufridutea da; esate baterako: "Janari horrek gatx egin deusta". Bigarrena: gatx berbea euskera batuko zail berbearen parekoa da, nekez eskuratu leiteken gauzea da gatxa; adibidez: "Arkitektura karrera gatxa dala dinodie".

ERETXIA

Stop plastikoa

Gaur egun, oindino barru-barruan sartuta daukagu gauzak erabili eta botateko ohitura konsumistea, eta horren ondorioz plastikoz ingurumenari egiten deusagun kaltea lehertzeko moduko mailara heldu aginean dago.

Plastikotza handiak noraezean itsasoan, ibai-bazterrek danetarik koloreetako plastikokinez "apainduta", mikroplastikoz kate trofiko guztian... plastikoz edonon, baita zopan be (halan da, benetan).

Petroliotik datozen produktu honeek, hainbeste (edo hain txarto) erabilten doguzanak, botatukoan ez dira barriz itzultzen.

Lehenengo eta behin, kontuan euki behar dogu plastikozko boltsak ontzizat hartzean dirala; beraz, eukiontzi horietara bota behar dira erreziklatzeko.

Baina, ba ete dakigu zelango plastikozko erabilten doguzan?

Heldulekudun plastikozko boltsak, elastiko motakoak, bizi guztian ezetu doguzanak, polietilenoak (PE) dira. Polietilenoa etilenoa, petrolioaren deribadua, polimerizauz sortzean da; beraz, lehengai barriztaezina da.

Azken aldi honetan zein baino zein "ekologikoagoak" diran plastikozko boltsak agertzen dira: degradagarriak, fotodegradagarriak, erreziklautako plastikoz eginak, bioplastikozkoak, biodegradagarriak, konpostagarriak... Ederra nahasmena, ezta?

Plastiko guztiak dira degradagarriak, hau da, denporearen joanean gitxika-gitxika desegiten dira eta zati geroz eta txikiagoetan apurtzen dira, harik eta mikroskopiko bihurtu arte. Holan sortzean dira mikroplastikoz; ia ikusi be ez dira egiten, baina plastikoz dira. Plastikoa, benetan, ez da itzultzen lurrera. Zehetu egiten da, besterik ez.

Aspaldion geroz eta gehiago erabilten dira osieran erreziklautako plastiko asko daukien boltsak. Horri esker baliabide barriztaezin gitxiago erabilten dira.



AITOR URIGUÉN
Jasangarritasun teknikaria

Ingurumenerako hoberena plastikoa biodegradagarria edo konpostagarria izatea da (ez dira gauza bera).

Zerbait biodegradagarria bada, mikroorganismoen metabolismoak degradetan ditu, hau da, mikroorganismoak digeridu egiten dabez eta polimeroen kateak apurtzen dabez molekula organikoak sortzeako. Horreek naturara itzultzen dira, bene-benetan, eta Lurraren ekologiako karbonozikloan sartzean dira.

Plastiko biodegradagarriak landare-produktuetatik datozen lehengaiak egiten dira: artoa, patata-fekula, eta abar. Ostera, ohiko plastikozko petrolioaren deribadua dira.

Zezer konpostagarria bada, biodegradagarria da, baina prozesua laburragoa da eta konpost egiteko zentro industrial baten egin behar da (temperatura handia eta aireztapen egokia).

Plastiko konpostagarrien hondakinak gehienez 12 aste irauten dabe degradatu barik; gainera, ezin dabe euki metal astunik, ez toxinarik, eta ezin dabe galarazo landareen hazkuntzea.

Material konpostagarri guztiak biodegradagarriak dira, baina biodegradagarri guztiak ez dira konpostagarriak.

Ohiko plastikozko boltsa bat guztiz degradetako 150 urte edo gehiago behar izaten dira. Gainera, prozesua amaitutakoan materiala plastikoa da, oso txikia bada be, eta ez da desagertzen naturatik. Barriz erabili ondoren atzera be eukiontzi horira bota behar dira. Boltsa honek egiteko lehengai barriztaezinak erabilten dira.

Guztiz (%100) biodegradagarria dan boltsa bat degradetako urte eta erdi behar izaten da (temperatura eta hezetasun maila jakinak mantenduta eta mikroorganismoak dagozala). Barriz erabili ondoren errefusen eukiontzira bota behar dira, ez dira eta plastikozkoak ez konpostagarriak. Boltsa honek egiteko soia, artoa eta beste landare batzuk landuten dira sail handietan modu industrialean.

Boltsa konpostagarri bat konpost bihurtzeko hiru hilabete behar izaten dira, eukiontzi egokira bota (marroia) eta konpostegi industrial batera heldu ezker. Erresistentzia zelangoa dan ikusita, bota aurretik barriro erabili daiteke eta azkenean hondakin organikoak eukiontzi marroira botateko aprobetxau.

Dana dala, edozein motatako plastikozko boltsen erabilera konsumismoaren "erabili eta bota" ohitureagaz jarraitzen dogu, ingurumenari kalte egiten (ekonomikoak eta ingurune kostuak: tratamendua, produkzioa, ur-konsumoa, lehengaiak, garrarioa...).

Neure buruari galdetzen deusat zer eukiko ete dauan goan hainbat boltsa (biodegradagarriak, konpostagarriak zein mailuki zaporekoak) irunsi dituan dotokeak... Zer esango deusuet, ba, hobeto telazkoak, zelan ez.

LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

Karma ona

Zeozeretan sinistekotan, karma onean sinesten dot: hurkoaren hobe beharrean, personen ontasunean, azpijoko ezan. Ba bai, kartera tabernako barran ixten dot kenduko deusten ala ez askorik pentsau barik (eta askotan ahaztu be bai). Mesederen bat eskatu, eta zergaitik ez? Nire eskuetan dagoana egingo dot faborea beteteko. Nonok zerbaist esan eta ez dot uste muinean inongo asmo txarrik dagoanik. Ez, ez da inongo erlijino sinesmenen ondorio, ezta *happyflower* postureorik be. Alperkeriagaitik da; izan be, kontrako jarkereak energia lar konsumiduten deusta. Nekagarria iruditzen jata beti txarrean pentsetan egotea. *Be water my friend. Don't worry, be happy.* Askotan esan deuste kokola hutsa nazala, asko sufriduko dodala holan pentseteagaitik. Baina ez jata joan hain txarto. Inoz pentsetan dot baita be besteen txartasunean jira-

biraka gabilzanean, finean, txartasunetik funtzionetan dogulako dala. Euren herrialdeak itxi eta gurera etorkizun (edo orainaldi) oparo edo ez hain miserable baten bila datorren personengandik zergaitik espero kontrakoa? Zergaitik uste dogu gutaz aprobetxauko dirala edota gurea ostuko deuskuela? Agian, guk geuk euren herrialdeetan hori berori egingo geunkelako, egiten dogulako?

Baina, tira, banabil gure buruen gainean modu ezezko-rean pentsetan. Gurago dot positiboan zentrau. Gurago dot geratu maiatzaren 5ean Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformeak Durangon antolatutako besarkada erraldoiagaz eta sortutako emozinoakaz. Eraldagarriagoa dala uste dot.

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Itaun eta iraun

Betiko zigor galderek iluntzen dute zure gogo: Zer tximeleta hegaldik ekarri zaitu lekune horretara?

Zuk hartzen dituzu erabakiak? Ala urratsak, edurretako oinatzei jarraituz ematen dituzu? Ohola zaren honetan, norik sortzen ditu olatuak? Non ikasten da garrantzitsua dena eta hutsala bereizten? Eta zure ametsak? Non daude zure arestiko ametsak? Agian, ahanzturaren kaxan, aspaldiko proiektu abandonatuen ondoan.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Maiatzaren 1a pasau barri dagoan honetan Irlandako Templechally herrian bata bestearen ondoan dagozan kartel bi horreen argazkiak ekarri gura izan dodaz hona errazoi bigaitik.

Bata, herri horretako andra garbitzaileak egindako protesta baten barri emoten deuskulako: trenbidearen geraleku barriak errekarako bidea ixten eutsen eta bertan garbituten ebezan euren eta inguruan egoan hoteleko erropak. Ikusita tren konpainiak ez ebazala euren eskakizunak kontuan hartuten, trenbidean zehar etxun ziran tren pasetea galazoz, konpainiak urtenbidea emon arte. Zubi hori eregi eban konpainiak trenbide gaintetik errekarara ailegetea errazteko.

Bestea, eredugarri iruditu jatalako lan-burruka horren inguruko memoria historikoa holan gordetea: bertan 1882an gertatutakoa karteletan ezarriz eta eurei esker eregitako zubiar *Washerwomen's Bridge* (Andra garbitzaileen zuba) izena ipinita.

Gura neuke neuk be gure inguruko langileak irabazitako gatazka bakotxa holan gordetea eta ospatutea!

Maite Artabe Urkiri



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarronga
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 606 664 016

Troka
Lanabizari Agura II

ARRATIA

Zahartzaroaren erronkai feminismitik zelan erantzun landuko dabe Jabekuntza Eskolan

Erredakzioa

Zahartzaroa feminismitik eragiten izan zan Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako topaketan, 2019-2020 ikasturterako adostutako ardatz barria. Aurretik be, maiatzaren 25ean, mobimentu feminista eta edadekoen mobimentuen arteko sinergiak landutako topaketea egongo da Igorreko Kultur Etxean.

Lehen gitxi batzuk heltzean ziran zahartzarora baina atzen hamarkada honeetan asko dira helduten diranak. Gizartearen lortu horrek erronkak planteetan ditu erakundeetan eta bizitzaren fase honeri aurre egiteko beste modu batzuen bila dabil jentea. Gainera, edadean aurrera egitean andrazkoak dira gehienak eta 1960 hamarkadako *baby-boom* hurreratzen doa erretiro edadera. Euren artean, hasikeratik feminismoan militau dabena dagoz. Feminismoa bizitza ziklo osorako bada be, zahartzaroak erronka barriak planteetan dauz eta horreei erantzuteko hausnarketea bultzatu gura dau Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak.

Mari Luz Esteban gidari

Hori dala eta, maiatzaren 25ean, 10:30etik aurrera, *Morea eta Grisa: zahartzaroa feminismitik eraikitzen* izenpean, berbalditailerra antolatu dabe Andren Jabekuntza Eskoleak eta Igorreko

Udalak.

Bertaratutakoak, Mari Luz Estebanen gidaritzapean, zahartzarotako zeintzuk diran gehien kezkatzen dituen gaiak eta arazoak, eta eurari zelan emon urtenbide feministaren gaineko hausnarketea egingo dabe. Mobimentu bien arteko sinergiak gainean edo-eta militantzia eta burruka modu barrien gainean be eztabaidatuko dabe partaidea.

Mari Luz Esteban, Gizarte-Antropologiako irakaslea EHUan, antropologia feminista aditua eta idazlea da. Ikasketa Feministak eta Genero masterraren koordinatzailea, aspaldi honetan zahartzarotik feminista landuten dabil.

Tailerraren aurretik, Beatriz Azpiri BEGITUKO kazetariak zahartzarotik eta andren politika global zein lokal gaineke zertzelada batzuk emongo dauz. Igaz Toronton izandako Zahartzarotik gaineke Mundu Mailako Konferentzian egon zan eta horren barri be emongo dau bizi dogun markoa emoteko.

Eskolearen izena

Maiatzaren 11n egindako ikasturte amaierako topaketan, eskolearen izenaren prozesuaren barri be emon zan. Hainbat proposamen jaso dira eta botazino bat egingo da jentearen artean adostasunik handiena lortzean dabezan laupabostak aukeratzeko. Gero, batzorde batek horreetako bat aukeratu dau eskolearen izentzat.

ESCUOLA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES DE ARRATIA
2018-2019
ARRATIako ANDREN JABEKUNTZA ESKOLA

MOREA ETA GRISA
ZAHARTZAROA FEMINISMITIK ERAIKITZEN

BEATRIZ AZPIRI Zahartzarotik politika global eta lokalak (Toronto 2018)	MARI LUZ ESTEBAN Zahartzarotik feminismitik eraikitzen
-----------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------

Maiatzak 25
10:30
Igorreko Kultur Etxean

AREATZA

Herriko dendetan hogei euro pagauta, hogetabost euro gastetako aukerea

Udalak, Areatzako Orburu merkataritza alkarlagaz alkarlagan, herriko merkataritza bultzatzeko helburuagaz 300 Bono denda ipini ditu salgai eta maiatzaren 27tik bagilaren 28ra arte erabili ahal izango dira.

Erredakzioa

Bonoak 20 eurotan erosi ahal dira udaletxean eta 25 euroko balioa izango dabe herriko 10 dendetan. Horretarako Udalak, 1.500 euro ipini ditu bonoetan, eta 1.000 euro baino gehiago kanpainearen diseinu eta zabalkundean.

Herriko komertzioa bultzatu eta herrian erosten dabena saritzea dira kanpaina honetako helburu batzuk. "Hasikeratik komertzioak herri garapenean eta herri bizitzan daben garrantziak oharturik euekaz alkarlagan hasi ginan. Alkarlan horren ondorioz, Orburu merkataritza alkarlea sortu zan eta kanpaina desbardinak egin doguz: etxez etxeko banaketea, erosketa gurditxoak, gabonetako otzarea... Eta atzenik Bono denda. Bonodendaren birtatez bezero potentzialak erakarri

gura doguz eta betiko bezeroak saritu" dino Asier Garcia Areatzako alkateak.

Hamaika komertzio

Orburu alkarlagan dagozan komertzioak hartzean dabe parte kanpaina honetan. Arantza Zamalloa Farmazian, Denda Barrin, Gauzak-en, La Kompran, Aliprox Areatzan, Antonio Harategian, Mas Ke Pan okindegian, Al Pelo ule-apaindegian, Amaia Egileor ule-apaindegian, Txelo ule-apaindegian eta Areatzako Estankotan erabili daitezke bonoak. Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gitxiagokoa bada, ez da dirurik itzuliko eta gehiagokoa bada, bono bat baino gehiago erabili daiteke. Galarazota dago bonoen truke dirua jasotea.

Bonoak udaletxean erosi ahal dira 20 euroren truke, Areatzan



errolatutakoak, maiatzaren 24ra arte, eta ez errolatuak, maiatzaren 20tik 24ra. 16 urtetik gorako persona bakoitxak gehienez bono 2 erosi ahal izango ditu.

ARTEA

Aurora García Marroquin gogoan

Erredakzioa

Maiatzaren 8an hil zan Aurora García Marroquin "Pitu", Arratian feminismoaren erreferenteetako bat izan dana. Inteligentea, lagun eta ezagunak gozoa, burrukan gogorra... Errastua itxi dau bera ezetu izan genduan andron bihotzetan. Hona dakarguz Ilgoranek, sasoi bateko Arratiako talde feministeak, eta Arteako Andra Taldeak egindako agurrak. Adiorik ez, konpainera!

2019ko maiatzaren 10a, Aurora García Marroquineri agurra,

Gorritik morera doa ustrukua. Gorritik morera doaz kolore guztiak. Gorria zara, morea zara, kolore guztiak zara. Zein beltzaren agertzen zinen uda hastear zegoela, hegoaldeetik bueltan, zein irribarretsu, Igorren lantokia zenuen kantoitik gertu, kafea zure kontu, zein pozik, ze ondo!

Arratiako Emakumeen Taldea zen "Arratiako emakumeak, gu ez gara enbrak!!" oihukatzen genuen hasiera haietan, gero etorriko zen lana, irakurri, idatzi, hitzaspertu eta eztabaida: militantzia; duda barik gure bizitzari zentzu handia eman dion militantzia feminista. Eta izanak izena behar zuen, zeuk eman zeniguna: Ilgoran. Landatzeko sasoirik onena. Ilgoran ilargi amandreak gero eta babes handiago ematen digun sasoi. Ilgoran landatuak ematen ditu fruituak, ilargi haren babesak ahaldundu gintuen, ahaldunak gara. "Begiratu ilgoraren edertasuna gorantz doan heinean", jarri genuen kartelean. Begiratu elkarrekin egin duguna, izan garena... Androk, lagunak, zurekin

Aurora, etorkizuna eta oroitzenak sortuz. Maite zaitugu.

Ke arteko arrats, iluntzeetan sortuz, ehunduz joan zen gure taldea, geuk ikasteko eta kanpora begira irakasteko. Andre libreak ginen, andre libreak izateko. Ausartak jendaurrean agertuz "Gure gorputza gurea da" eta "Nosotras parimos, nosotras decidimos" garrasi egiten genuen supermerkatuaren aurrean. "Nik ere abortatu dut" kartelean jarri ginen eliz atarian... -Nire amari ia bihotzekoak eman dio- esanez barre egiten genuen.

Ta zeuk gorde duzu artxiboa eta herriko andre gazteei eman. Eskerrik asko gure kide, gure lagun izan zarelako. Zu izan zarelako gara eta garelako izango dira.

Ke arteko arrats, iluntzeetan, ikasten, sortzen, libreagoak izaten.

Ilgoran

Zuk hainbeste gura zenduan Arteako Andran Gelan gagoz.

Esku artean daukaguz urteetako ibilbidean zehar hain ondo gorde dozuzan materiala eta argazkiak, feminismoaren maitasun eta indarraren aztarna.

Gogoratuten dogu andron gela zabaldu zaneke eguna, gure arteko aliantzak, ilusinoak, eztabaidak, alkarlanak... Bide-lagun egingo genduzala oihukatu genduan. Zugaz batera hasi eta jarraituko dogu bere horretan. Geugaz gagoz eta!

Andra aitagarrien gure gelako hormairudian be bai, klaro!

Betiarte, Pitu!

Arteako Andra Taldea

ARTEA

Arteak diru laguntzak emongo ditu basoetan bertako arbolak sartzeako**Erredakzioa**

Arteko basoetan bertoko espezieak sartzean dabenezanai diruz lagunduteko ordenantza bat onartu dau Udalak; hektareako 1.500 euro eta gehienez 3.000 euro jaube bakoetako, hain zuzen be. Laguntza eskaerak jaso ahala emongo dira, dirua amaitu arte, eta Foru Aldundiak emoten dauzanakaz bateragarriak dira. Ordenantzea aho batez onartu zan.

Pinuak eta eukaliptoak dakarrezan kalteak ikusita, bertoko espezieak bultzatzea gura dau Udalak. "Basoen kudeaketea eta esplotazioa partikularren eskutan ixteak dituan kalteez ohartzea ez da gatxa. Pinuak, eta gero eta ge-

hiago eukaliptoak bertako haretzen eta gaztainen lekua hartu dabe. Arteko Udal Gobernuari bertako ondarea babestea ezinbestekoa iruditzen jako" azaldu deutso BEGITURI Igor Etxaniz Arteko alkateak.

Baso politikea

Ordenantza hau ez da Udalak hartu dauan lehenengo neurria, pinu eta eukaliptoaren hedadura geratu eta Artean bertoko basoak errekuperatu daitezkan. Izan be, igaz Udalak 100.000 metro karratu baso erosi ebazan.

Aurten, diru laguntzak emongo deutsez bertoko espezieak landatzen dabean baso jaubeai. Abenduaren 15era arte eskatu daitezke diru laguntzak.

eta mezu pentsaezinak dagoz, beste berezitasun batzuen artean" dinoe antolatzaileak.

Jarduerok euro 2ko prezioa daukie, 12 urte baino gitxiagokoak debalde.



ZEBERIO

"Zeberioako Altxorak" hilabete bakoetako lehenengo domekan**Erredakzioa**

Gorbeia Euskadik antolatuta, hilabete bakoetako lehenengo domekan, udalerrian zehar ordubete t'erdiko iraupeneko bisita gidatuen programearen barruan, herria sakon ezetuteko aukerea egongo da. Familian eta aire librean egiteko jarduerak izango dira 11:00etatik 12:30era.

Jarduera honeetan, beste batzuen artean, Ermitabari auzunea, Errementariaren Museoa edo Olabarrietako Santo Tomas eleizea ezetu ahal izango dabez parte hartzean dabenak. "Eleiza horretako atari ikusgarrian, irudi

IGORRE

Ardi-txakur alemaniar erakustaldi eta lehiaketeta**Erredakzioa**

Espania, Alemania eta Italiatik etorritako ardi-txakur alemaniarrek batuko dira Igorren bagilaren 2an, Real CEPPAren (Ardi-Txakur Alemaniarraren Kluba) Euskadi-Nafarroako ordezkarietako antolatutako VIII. Monografikoan. Agirre Lehendakari 105ean dagoan parkean izango dira txakur honeek protagonista izango dabean jarduerak.

Txapelketan, epaiak kontuan hartuko ditu erraza prototipoa, oreka mentala eta kumeak egiteko itxurak. Edadearen arabera kategoriak egongo dira. Lehenengotik, 4 eta 6 bitarteko txakurkumeak lehiatuko dira, gero, 6 hilabetetik 9 hilabetera bitartekoak, eta gero 9 eta 12 hilabete bitartekoak. Ondoren, txakur oso gazteen txandea izango da, 12 eta 18 hilabete bitartekoena; gero, gazteak, 18 eta 24 hile bitartekoak eta atzenik nagusien txandea,

urte bitik gorakoena, hain zuzen be. Lan batzuk egin beharko ditue txakurrak, lehiaketan.

"Ardi-txakur alemaniarra, gure gizartean hainbat lan egiteko txakur errazarik erabilienetakoa da. Horregatik, oin dala 40 urte



sortu zanetik, Real CEPPAK, erraza prototipoan oinarritutako kumeak egiteko selekzioa egiten dau" azaldu deutso BEGITURI Javier Silva klubeko presidentek.

Umeentzako jolasak

Ondoko parkean ume eta gazteentzako jolasak egongo dira. Han ume eta gazteak txakurrak hezten ikasiko dabe eta arpegiak pintatuko tailerrak, pintura tailerrak eta abar izango ditue. Baita kopaua eta diploma banaketeta be.

LEMOA

Bazkaria eta musika giroa euskal jaian**Erredakzioa**

Lemoako Jai Batzordeak antolatuta, bagilaren 1ean ospatuko dabe Lemoan euskal jaia. Ekitaldi nagusia plazan egingo dan bazkaria izango da, 15:00etan. Eguraldi txarra egiten badau eskolako aterpean bazkalduko dabe. Bazkari-rako tikitak Lemoako udaletxean erosi daitezke maiatzaren 24ra arte.

Bazkaurretik hasiko da jaigiroa herrian. Izan be, 13:00etan, tabernaz taberna musikaz lagundutako poteoa egiteko aukerea egongo da, Kresala tabernatik hasita.



publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

DIMA

Akelarrea Indusin, Jentilak Diman ekitaldiaren barruan

Txumuluxueta Kultur Elkarrekin eta Dimako Udalak antolatutako dabe *Jentilak Diman*, mitologia ezetutako emoteko. Aurten, ikuskizun eta jardueretako egun nagusia maiatzaren 25a izango da. Egun horretan, ibilbideaz gainera, Akelarre bat be egongo da Indusin, ilundutakoan. Aurreko astean be, hainbat ekintza antolatu dabez, batez be eskoleagaz alkarlanean, kultura ondarea hurrengo belaunaldia be pasetako. Sugoiren egoitzan eta Jentilubiren inguruan antolatzen ditue ekitaldiak.

Erredakzioa

Bertaraten diranak laminak, jentilak, Sugoi, Akerbeltz, Basandere, Behigorri, Olentzero eta beste izaki mitologiko batzuk bertatik bertara ikusteko aukerea izango dabe.

Irrintzi tailerra, ibilbide mitologikoa eta akelarrea

Zapatua, hilak 25, izango da egun Nagusia. Eguerdiko 12:00etan, Vanessa Sanchez EITBko kazetariak *Irrintzi* tailerra emongo dau Abaroa aretoan. Kazetariak irrintziaren inguruko bere bibentziak aitatu dau eta gero, irrintzia botateko zer egin behar dan eta zelan azalduko dau.

Arrastian, sei t'erdietan, hasiko da ibilbide mitologikoa. Indusitik urtengo da, Zamakolako zubitik ohi moduan. "Oin arteko moduan pausaleku batzuk egongo dira eta pausaleku bakotxean, edo antzeppen bat edo ipuin kontaketa bat edo ondare naturalari buruzko azalpena, edo abesti bat... egongo da" dino Gotzon Aurrekoetxea antolakuntzakoak. Gibeltar pasau eta lehenengo gunea laminaren gunea izango da eta hor ipuin bat kontauko da, bertakoa. Laminak antzeppen txiki bat egingo dabe.

Jentilubi izango da bigarren gunea. Han, inguruko naturari buruzko aurkezpen bat egingo dau Urtzi Uriarte espeleologoak. Uriartek ondo ezetutako urak egin dituan barruko ibilbide guztiak. "Bera hor ibilita dago, esploratzen. Eta zelan sortu zan hori inguruori, eta Jentilubiren sorrera azalduko dau. Baina sorrera zientifikoa, ez mitologikoa" dino Aurrekoetxea.

Ibiltariak gero, Baltzola kobazuloaren beheko atetik sartuko dira. Pausu ilun hori argizatuta egongo da, koloretako argiak ipiniko dira barruan. Partaideak pausu hori izaki mitologiko batek lagunduta egingo dabe. Izaki bakotzak



taldetxo bat hartuko dau eta joango da azaltzen zer ikusi daitekean. "Agertuko da jentilen bat, agertu daiteke sorgin bat, iratxoren bat... personaje desbardinak". Eta argitasuneran joango dira.

Danak goiko partean dagozanean, antzeppen txiki bat egingo da. Antzeppena amaituten danean, Sugoi agertuko da eta orro handi bat botako dau.

Koba handitik Abarora pasaukeran, musikaz lagundutako ibilbidea izango da. Goiko partean, bi edo hiru ekintza egongo dira. Jantza bat egongo da, lamina jantza bat; eta koruak kantu bi kantauko ditu. "Kantu bat abotsetara eta beste kantua oso bizia izango da. Beste kantu horregaz irudikatuko dogu bizimodu tradizionala, lehenengo munduaren ikuskerearen amaiera. Amaiera hori traumatikoa izan zan eta trauma hori, mundu barri horretara sartzeko ezintasuna, zelan edo halan erakutsi gura dogu kantu baten bidez" azaldu deutso BEGITUARI Aurrekoetxeak.

Ibilbidea amaitutakoan, iluntzean, Indusin Akelarrea egingo dabe. "Aurten ibilbidearen sorrera kobara egingo da. 5 euro. Baina 5 euro horreez Akelarre horretan pintxo bi eta tragu bat hartzeako aukerea egongo da". Tikitak egunean bertan, ibilbidea egin aurretik ipiniko dira salgai.

Garagardaoak be, mitologia izenekoak izango dira.

Aurreko astean sari banaketea eta berbaldia

Arratiako eskola guztiak parte hartu dabe Txumuluxueta alkarrekin aurten lehenengo aldiz antolatu dauan mitologiari buruzko Ipuin

eta Marrazki Lehiaketan. Sari banaketea eguaztenean, hilak 22, izango da 17:30ean. Sari banaketearen ostean Maite Franko ipuin kontalariak *Euskal irri eta orroak* saioa eskainiko dau.

Hurrengo egunerako berbaldia bat antolatu dabe Jubiladuen alkarrekin batera. Zugarramurdiko Koro Irazokik, *Zugarramurdi: sorginetik sorginkeriarat* berbaldia emongo dau. Arrastiko 19:00etan izango da Jubiladuen lokalean.

Astean zehar herria girotzeko eraikinetatik herriko marrazkilaria egindako izaki mitologiko batzuen irudiak zintzilikatuko ditue.

Ingurua jagoteko konpromisoa

Baltzolakobak, Jentilubi eta ingurua babestuta dagoz. Izan be, hor saguzarrak bizi dira eta jentearen eragina eta zaratea ezin dira larregizkoak izan. "Etorren dan jentearagaz eta gehiago etorrita be, oindino kontrolauta dago. Jasangarritasun neurria kontrolatan dogu, zenbat jente datorren, zaratea... Saguzarrak dagoz eta badago gune berezi bat. Gune hori jamon egin behar da, eta horretarako adituakaz hartu-emonetan gagoz. Badakigu norainoko zaratea egin ahal dogu, norainoko eragina izan ahal dogu eta momentuz dana ondo neurtzen dogu. Urtenbideak hasi gara bilatzen badaezpada, baina momentuz 400 persona inguru egoten gara gitxi gorabehera eta ez dago problemarik" dino Txumuluxuetakoak.

Aurten, jasangarritasuna eta ekintza beraren iraunkortasuna bermatzeko akordio bat sinatu dabe Udalagaz.

IGORRE

AVIAgaz hitzarmena sinatu dau Udalak bizikletak garbitzeko gunea ipinteko

Erredakzioa

Igorreko Udalak eta AVIA Igorreko gasolindegiko arduradunak hitzarmena sinatu dabe bizikletak garbitzeko gunea gasolindegian ipinteko. Erabilpena doakoa izango da oingoz. Azpiegitura hau arlokako batzarretan agertutako aspaldiko eskaera dala dino Udal iturriak. Lanak 6.446 euro kostuko dira.

Eskolako patioko lanak be kontratazina atera ditue. Gehieneko lizitazioa 86.282,15 euro da eta hilaren 29ra arte aurkeztu daitekez proposamenak.

Kultur Etxeko goiko hiru tailerretan aire girotua ipinteko instalazioa egin da eta autobus geralekuaren atzekaldean argiteria barria ipini da.



LEMOA

Auzo bazkaria Larrabeitin

Erredakzioa

Maiatzaren 25ean auzuneko jaiak ospatuko dabez Lemoako Larrabeitin. Auzo bazkaria eta txapelketak izango dabe protagonismo nagusia.

Goizeko 10:00etan botako dabe txupina eta horren ostean, jaigiroak hartuko dau Larrabeiti egun osoan zehar. 11:00etan, bertara hurreratzeko diranak txistorra, urdaiazpikoa eta gaztaia dastatzeko aukerea izango dabe. Ordu bete beranduago, eguerdiko 12:00etan, umeentzako jolasak egongo dira. Jolasok, batez be herri kirolatan oinarrituko dira eta umeak soka-tiran eta txinga erosten emongo dabe eguerdia. 13:00etan, Igel Txapelketea eta 15:00etan, auzo bazkaria.

Bazkalostean, 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak jokatuko dira, eta 18:00etatik aurrera, jantzaldia egongo da jai egunari amaiera emoteko.

V. JENTILAK DIMAN - 2019
(Mitologia jardunaldiak, maiatzaren 22tik 25era)

- MAIATZAREN 22an 17:30etan (Eskolako katean)**
Ipuin eta marrazki lehiaketaren sari-banaketa.
Ostean **Maite Franko** ipuin kontalaria: *Euskal irri eta orroak*.
- MAIATZAREN 23an 19:00etan (Jubiladuen lokalean)**
Koro IRAZOKIren berbaldia
Zugarramurdi: *sorginetik sorginkeriarat*.
- MAIATZAREN 25ean:**
 - * 12:00etan (Abaro gelan): **Vanessa Sanchez**en **IRRINTZIA**ri buruzko berbaldia eta tailerra
 - * 18:30etan: **MENDI IBILBIDE MITOLOGIKOA**
Baltzolakobak (urteera Indusi auzotik): sarrera 5 €
 - * 21:30etan: **AKELARREA** Indusin
- Antolatzaileak: Txumuluxueta Alkarrekin eta Dimako Udala**

- Ondoko alkarrekin laguntzagaz: Dimako Eskola, Guraso Alkarrekin, Dimako Liburutegia, Zamakola Alkarrekin, Dimesten, Andraizea, Dantzari finak, Korua, Dimako Bertso-eskola.

UDABERRIKO ESKAINTZAK 2019

STIHL®

ZURE LORATEGI BIKAINENA ESKAITZA ONENEKIN

2019ko ekainaren 28ra arteko balioan eskaintzak

ETORRI ZURE DENDA ESPEZIALIZATURA

GARAJE FELIPE

www.garajefelipe.stihl-tienda.es

- 📍 Garbe, 2 - Igorre
- ☎ 946 736 339
- ✉ garajefelipe@euskalnet.net
- 📍 Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
- ☎ 946 309 039
- ✉ garajefelipe2@telefonica.net

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTEK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

MATRIKULA

Epea: maiatzean

- ONLINE: www.arratiakomusikaeskola.eu

* INFORMAZIOA:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan
- 10:00etatik - 13:00 arte Tfnoa: 94 631 73 52
- Web orrian

* 2 eta 3 urteko umeak, IGORREN zentralizatuta, matrikulatu ahal dira. Aita edo amarekin joan beharko dira klasera.



- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu

arratia.musikaeskola@gmail.com



Hauek dira Arratiarako gure alkategaiak:

Asier Aburto Cortes
Asier Garcia Artetxe
Igor Etxaniz Urrutia
Lurdes Ortega Lahera
Jose Mari Atutxa Olabarri
Illart Gumuzio Larrazabal
Saioa Elejabarrieta Amorrortu
Jabi Campo Goicouria

Arantzazu
Areatza
Artea
Bedia
Dima
Igorre
Lemoa
Zeanuri

Zurekin
ARRATIA
gara



ehbildu

ehbildu

Zurekin
BIZKAIA
gara



Zergatik ez bizi
herrialde hobe
batean?

Bea Iardia Olangua
Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagaia

AREATZA MUSIK & BEER**AREATZA MUSIK & BEER****Egitaraua****Maiatzak 31, barikua**

17:00etan, Kaitxoren eskutik txokolate eta kafe dastaketea eta salmentea erreka pasealekuan Paul San Martin Trio musika taldeak girotua.

19:00etan, Mississippi Queen & The Wet Dogs.

20:30ean, Los Brazos.

22:15ean, Keylock.

24:00etan, Eskean Kristö.

Bagilak 1, zapatua

12:00etan, garagardao (Beerbao) eta gaztai maridajea erreka pasealekuan (15 euro).

13:00etan, bermut eta gilda (Destilerías Atxa) maridajea erreka pasealekuan (15 euro).

13:30etik **15:30**era, musikea herrian zehar EuskOrleans Dixie Band taldeagaz.

16:00etan, Destilerías Atxako Rudaina Jaber Carballok prestatutako konbinaduen maridajea (10 euro).

17:00etan, Munduko III. Garagardao Kupelen Jaurtiketa Lehiaketea.

18:00etan, James Room & Weird Antiqua.

20:00etan, The Soul Jacket.

22:00etan, Jared James Nichols.

24:00etan, The Riff Truckers.

Egun bietan, antolakuntzeak udaletxeko arkupetan ipinitako janari stand-a eta Bilbo Dulceren postre gozoak egongo dira.



AREATZA MUSIK & BEER. TALDEAK

Mississippi Queen & The Wet Dogs

Talde bilbotar honek musika baltzaren estilo asko jotzen ditu, blues, soul, rock eta funk, besteak beste. 2015ean sortu zuan Ines Eleuteria (abotsa) eta Aitor Zorriketa (gitarrea) duo akustiko moduan. Oin boskotea da, Ander Alonso (bateria), Kike Mora (bajua) eta Mikel Nuñez (tekladuak) batu diranetik.

Blues-etik eratorritako gaur egungo musika jotzen dabe eta kantuen gaiak be ugariak dira. Disko bat daukie katean *Try Me* (2019).

Los Brazos

Bilbo inguruko hirukote honek beti jo izan dau rock and rolla. Izena, Gov't Mule taldearen *Broke Down On The Brazos* kantuan aitaturatutako Texasko Rio de los Brazos de Dios erreka izenetik dator.

Taldea, Gillermo Gutierrezek, "William" (abotsa eta gitarrea), Alberto Chamorrok, "Koki" (bateria) eta Jose Migel Gandarak, "Txemi" (bajua) osotuten dabe. Lau disko ditue katean, *Delay 10 Classic Tracks* (2012), *Welcome to Los Brazos* (2013), *GAS* (2015) eta *LIVE 2015-2017* (2017); baita bideoklip bat be *Magic*.

Keylock

Aaron Keylock gitarrajole britaniar gaztea hasi zuan gitarrea jotzen 8 urteaz eta 11 urteaz hasi zuan Oxford-eko klubetan jotzen. 13 urteaz gauero jotzen eban eta 16 urte eukazanean aldizkari espezialduak onenen artean aitaturatzen eban. Aaron Keylock lehenengoz dator Euskal Herrira bere talde barriagaz.

Aaron 2017an hasi zuan Keylock eragiten, Liverpoolen bizi zuan Jonnie Hodson abeslaria ezetu ebanean. Aaron eta Jonniegaz batera, Thom Carter (tekladua), Jack Browning (bajua) eta Joe Major (bateria) izango dira Areatzan.

Cut Against The Grain (2016) diskoa grabatu eban Los Angelesen. "Diskoak britaniar rock talentu itzela nabarmentzen dau, bera bakarrik bere gitarreaz. Bere kantuak eztanda egiten dabe, jarkera gordin eta poderetsuagaz".

Eskean Kristö

Talde arratiarrak hirurogeta hamarreko hamarkadako soinu zaharra, rock & roll-a jo eta gainezkako jarkerea erakusten dau. *Eskean Kristö* maketeagaz egin ziran ezagunak eta harrezkeroztik, beste hiru disko kaleratu ditue, *Azote Kaldüz* (2014), *Ezkurrik onenak* (2016) eta *Beste belaze batzuen gozoan* (2019).

Pello Artabek (abotsa), Alex Harillok (gitarrea), Aritz Ontalvillak (gitarrea), Peio Artetxek (bajua) eta Manu Fortek (bateria) osotuten dabe taldea.

James Room & Weird Antiqua

James Room Bilboko musikari, konpositore eta abeslaria da eta Weird Antiqua, akonpainamentua egiten deutzan bandea. Soinu trinkoa eta xehetasunez betea egiten dabe. *Weird Antiqua* albumean blues, rock, jazz, soul edota folka entzun daiteke. Igaz beste disko bat kaleratu eban, *Honest Man Blues* eta estreinaldian Bilboko Kafe Antzokia guztiz bete eban. Lan hau, aurrekoa baino elektrikoagoa eta bortitzagoa da eta taldearen alderik basatienera erakusten dau. Beste disko bat be badaukie *Take One* (2011) izenekoa. Hainbat sari jaso ditue, tartean, XXV. Villa de Bilbao Lehiaketako gitarrajole onenari saria.

The Soul Jacket

Galizako taldeak bere atzen diskoan, *Plastic Jail* (2018), "modu iraultzailean berrasmatzen dau rhythm & blues, rock & roll eta southern soul-en formulea". Taldearen zazpigarren diskoa da. Aurrekoak, *Wood Mama* (2012), *Gunpowder Valley* (2013), *Black Cotton Limited* (2014), *Soul BBQ* (2016), *Untitled. Volume III* (2017) eta *Rainbow Pills / In a Golden Brown EP* (2018) dira.

Toño Lopezek, Jorge Mizer-ek, Guillermo Gagliardik, Mauro Comesañak, Jann Zeregak eta Xabier Veitezek osotuten dabe taldea.

The Riff Truckers

The Riff Truckers taldea Ea (Bizkaia) herrian sortu zuan 2005ean. Rock and rolla, bluesa eta country-a jotzen dabe hasikeratik. 2006an hasi ziran kontzertuak emoten eta harrezkeroztik ez dira gelditu.

2008an, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, Memoria de Pez taldeagaz batera emondako kontzertua grabatu eban DVD baten eta 2009an, *On route* diskoa kaleratu eban. Martian jaialdiko aurkezpenean egon zuan taldea eta arrakastea ikusita antolatzaileak eszenaleku handian joteko aukerea emon deutzis.

Jared James Nichols

Jared James Nichols Wisconsin-go (AEB) blues-rock gitarrajolea da. Izen bereko hirukotearen liderra. Bere gitara elektrikoa joteko teknikegaitik eta indarragaitik da ezaguna. Dennis Holm-ek (bateria) eta Ronnie Elvis James-ek (bajua) osotuten dabe hirukotea.

James Jared Nichols-ek hiru disko ditu katean, *Old Glory and Wild Revival* (2014), *Highwayman EP* (2015) eta *Black Magic* (2017).



Paul San Martín Trio eta EuskOrleans

Paul San Martín pianojole donostiarrak gidatzen dau hirukotea. Blues zale amorratua, eszenalekuetan 15 urte ebazanezik dago eta Donostiako Jazzaldian sarritan jo dau. Carlos Sagik (bateria) eta Nando Neirak (bajua) osotuten dabe hirukotea.

EuskOrleans Dixie Band-ek euskal musikako kantuak; berbarako, *Bizkaia maite*, *Bogaboga* edo *Txoria txori*, 1920 eta 1930 hamarkadetakoa New Orleans-eko musika estiloan jotzen dauz. Honek dira taldekideak: Javier Area (bateria), Jon Viejo (soussaphonea), Iñaki Dieguez (eskusoinua), Mikel Sukunza (banjoa), Julen Izarra (saxo sopranoa), Mikel Valcarlos (tronpetea) eta L.M. Moreno "Pirata" (tronboia).

PELOTEA**Ekhi Ziarrusta GRABNI Txapelketan txapeldun**

Maiatzaren 4an jokatu zan finala Hendaiko frontoian Federazioen arteko GRABNI Txapelketako Trinkete Eskuz Binakako finala, Bizkaia eta Nafarroaren artean. Bizkaiko bikotea, Ekhi Ziarrusta pelotari dimoztarrak eta Inhar Ugarte Getxokoak osatu eben. Bizkaitarrak 40-35 irabazi eutseen nafarrai txapela lortuz.

Erredakzioa

Eta beste final bitara sailkatu da dimoztarra: San Trokaz Eskuz Binakako Txapelketako finalera eta Lau t'erdiko finalera. Lehenengoa, Abadinoko Tornosolo trinketean jokatu dau maiatzaren 17an, 18:30ean, Lur Ziarrusta anaia, bikotekide dala, Jon Arana eta Asier Aspuru abadinotarren kontra. Bizkaiko Lau t'erdiko Txapelketako finala, barriz, Derion jokatu dau Lemoako Mikel Aurrekoetxaren kontra. Lau t'erdikora sailkatzea sorpresea izan dala dino Ziarrustak, aspaldi honetan trinketean baino ez daualako entrenetan.

Final horretan, Arratiak lau ordezkari izango ditu: Imanol Urigoitia Zeanurikoa Gazte mailan, Kimetz Zapiko Dimakoa Sub22 mailan eta Ekhi Ziarrusta eta Mikel Aurrekoetxea Nagusi mailan.

Trinketea

Ziarrustak asko jokatuten dau trinketean eta horretan hobetuteko Iparraldean jokatu behar dala uste dau. "Inhar Ugartegaz ibili naz aurtan Iparraldeko Txapelketan trinketean. Eta igaz Gabonetan lortu genduan irabaztea Frantziako Bigarren Mailako Txapelketea eta oin lortu dogu Iparraldeko Txapelketako Lehenengo Mailan jokatu ahal izatea afizionaduetan. Hori urrietan hasiko da. Gure helburua beti izanda hori, ze Iparraldean dago maila gorena trinketean" azaldu deutso BEGITURI Ziarrustak. Txapelketa horretan jokatuteko urritik urtailera, astegoienero joan izan dira Iparraldera.

GRABNI Txapelketan Bizkaia ordezkatzeko Txumluxuetako pelotari moduan egon da. "Nik Txumluxuetaren izenean egingo dodaz hemengo txapelketa guztiak" dino.

Iparraldean barriz, Hendaiarrek, Hendaiko klubagaz jokatu dau. "Hendaikoak bertakoak gestionetan deuskuez partiduak, eta etxeko partiduak Hendaian dira".

Ezetzta Espainiako Selekzioari Espainiako Selekziotik deitu eben Ekhi Ziarrusta Munduko Kopako entrenamentuetara, baina Ziarrustak ezezkoa emon eban. Gauza bera egin dabe Asier Aspuru Abadinoko pelotariak eta Inhar Ugarte Getxokoak be.

Berak beste bide bat aukeratu dau dino Ziarrustak. "Batzuek aukeratzen dabe bide bat, Espainiagaz jokatutea eta beste

batzuek ez. Eta motiboak? Ba, askok esaten dabe azkenean kirol ibilbidea dala, baina kasu honetan, Espainiako Selekzioagaz Munduko Kopa jokatzen, ez dot uste kirol arlotik asko irabazten danik, Euskal Herriko Txapelketan bertan, maila hobea dagoalako. Hau da, Euskal Herrikoan igoal hiru edo lau partidu gogor euki ahal dozuz eta Mundukoan Frantziaren kontrako izango da partidu gogor bakarra. Horregatik uste dot Iparraldean jokatuteko ebatzia askoz sakrifikauegoko dala eta hori bai dala kirol arloan hobetuteko eta goi mailara helzteako modua".

**Ekhi Ziarrusta.****FUTBOLA****Arratiak bigarren postuan amaitu dau ligea****Erredakzioa**

Arratia andrazkoen taldeak bigarren amaitu dau Euskal Liga 71 puntugaz. Tolosak irabazi dau ligea eta puntu batera gelditu da Arratia. Atzen partidua 2-6 irabazi eben arratiarrak Mariñoren kontra. Arratiakoak oindino ez dakie Bigarren Mailara igongo diran ala ez.

Arratia B andrazkoak

Arratia B taldea, ligea amaitu ostean, atzen fasea jokatuten dabil. Lau ekipo dagoz bere taldean; Enkarterri Neskak, Betiko Neskak B, Ibaiondo Nerbioi eta Arratia B. Hilaren 12an jokatu eban Arratiak Urbietan Betiko Neskak B taldearen kontra, 6-1 irabazi eban partidua. Hiru partidu jokatu ostean Arratiak lehenengo postuan amaitu dau fasea 7 puntugaz.

Arratia A gizezkoak

Arratia A taldeak bana bardindu eban maiatzaren 11n Elorrio Bren kontra etxetik kanpo jokatutako partidua. Aurreko astegoienean ostera 0-1 galdu eban etxean Sondikaren kontra. Datorren partidua Loiuren kontra jokatuko dabe Urbietan maiatzaren 18an 15:30ean. Arratia atzeko postuetan dago 32 jardunaldiren ostean 25 puntugaz.

Arratia B gizezkoak

Arratia B taldeak hilaren 11n jokatutako atzen partidua 1-0 irabazi eban Urbietan Iraulzaren kontra. Arratia bosgarren postuan dago 32 jardunaldiren ostean 57 puntugaz. Datorren partidua Urretxindorra Ikastolaren kontra jokatuko dau Arratiak hilaren 19an 13:15ean.

LemoaHarrobi

LemoaHarrobi taldeak hilaren 12an jokatutako atzen partidua 2-1 galdu eban Basconia B taldearen kontra. LemoaHarrobi hamargarren postuan dago 32 jardunaldiren ostean 42 puntugaz. Datorren partidua Ezkurdi Aren kontra jokatuko dau Lemoako taldeak hilaren 19an 18:00etan.

ESKALADEA**Bloke Eskaladako Espainiako Kopa irabazi dau Itziar Zabalak****Erredakzioa**

Maiatzaren 11n jokatu zan Cereza Wall Plasenciako errokodromoan 2019ko Bloke Eskaladako Espainiako Kopako hirugarren eta atzen proba. Hirugarren proba honetan bigarren egin eban Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak Rut Casasen atzetik.

Baina bigarren postu hori nahikoa izan eban Zabalak 2019ko Espainiako Kopa irabazteko. Izan be, hiru proben puntuazioak gehituta bera izan da irabazlea.

Plasencian 60 eskalatzaile baino gehiago batu ziran kategoria desbardinetan. Dani Andradak eta Carlos Catarik ekipau ebezan blokeak, Ruben Lopezen laguntzeaz.

Mutiletan, Mikel Linacisoro bergararrak irabazi eban Espainiako Kopa.

**Itziar Zabala.****HERRI KIROLAK****Atutxak eta Urruzunok 5 Kirol probako txapela irabazi eben****Erredakzioa**

Finala, maiatzaren 1ean jokatu zan Bilboko Bizkaia frontoian. Azkolari dimoztarra eta harrijasotzaile ondarrutarra, Xabier Orbeago "Arria V." eta Jokin Eizmendi gipuzkoarrai nagusitu jakien.

Probak azkora eta harrijasotze lau seriegaz hasi ziran. Azkolari bakotzak 45 hazbeteko hiru enbor moztu behar ebazan. Eta ha-

rrijasotzaileak 100 kiloko harriari 25 jasoaldi egin behar eutsien txanda bakotxean. Hasikeratik bizkaitarrak aurrea hartu eutseen gipuzkoarrai.

Gero, txinga eroate, ingude atxatze eta trontzako probak etorri ziran. Atutxa eta Urruzuno bentajea handitzen joan ziran. Lan guztia, 41 minutu eta 16 segundotan amaitu eben, beste bikoak baino 4 minutu gitxiago.



MARATOI TXIKIA

Arratiako Maratoi Txikia bagilaren 2an

Erredakzioa

Edade bakotxari egokitutako distantzia dagoan arren, Zeanuri eta Igorreren arteko 11 kilometroak emoten deusie izena Arratian izen handia dauan lasterketa honeri. Nagusien ibilbide hori egiteko urtekerea Zeanuriz izango da 10:15ean. Partaideak izena aldeztetik emon leikie *sailkapenak.com* webgunean edo egunean bertan Igorreko kiroldegian, 08:45etik 09:15era. Igorretik Zeanurira joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzeak 09:30ean.

2002tik 2006ra jaiotakoak, Arteatik Igorrera ibilbidea egingo dabe Arteatik 10:30ean urtenda. Izena emon eta dorsalak jaso Arteako plazan egin behar dabe egunean bertan.

Txikerrenak Igorren

Edade guztietako galapariak hartzean dabe parte lasterketa ho-



netan, bakotzak bere edadeari egokitutako ibilbidea eginez. Holan, Haur Hezkuntzakoak Igorreko kiroldegi aurretik urtengo dira eta 300 metro egingo ditue, kiroldegi atetik hasi eta bueltea emongo deusie eskoleari.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako eskolaumeak barriz, Institutuko goiko sarreratik urtengo dira, Arantzazuko bidetik bueltea emon eta Igorreko eskolako

patioko helmugara ailegauko dira 700 metro inguru eginda.

Laugarren, bosgarren eta sei garren mailakoak barriz, 1.300 metro inguruko zirkuitua egingo dabe Igorretik.

Sariak jagokienean, parte hartzean daben ume guztiak izango dabe saria. Nagusietan, andrazkoetan eta gizonezkoetan, kategoria bi egongo dira bakotxean, absolutoa eta beteranoak, hain zuzen be.

PELOTEA

Danel Elezkanok Buruz Buruko finalerdia jokatu dau Iker Iribarriaren kontra

Erredakzioa

Maiatzaren 6an, Peio Etxeberriari 22-13 irabazi ostean, hilaren 19an Iribarriaren kontra jokatu beharko dau EPELEko Eskuz Banakako Txapelketako finalerdia Eibarko Astelena pelotalekuan. Elezkanok atzen urte bietan jokatu dau txapelketa guztietako finalerdietan egon da

igazko Lau t'erdioa kenduta.

Aurtengo Buruz Burukoak aurkeztu zan egunean asko aitatu zan atzen urteetako txapelketarik irekiena zala eta emaitzak holan dala erakutsi dabe. Izan be, atzenengo txapelkun biak, Jokin Altuna eta Oinatz Bengoetxea, ez dira finalerdietarako sailkatu. Finala, Bilbon jokatu dau bagilaren 2an.



TXIRRINDULARITZEA

Emakumeen II. Klasikoa Zeberio eta Arratiatik pasauko da

Erredakzioa

Bagilaren 1ean jokatu dan Emakumeen II. Klasikoa, aurten Ugaon hasi eta Ugaon amaituko da. Junior, Sub23 eta Elite mailakoak, Ugaon-Arrigorriaga-Ugaon hainbat buelta egin ostean, Zeberio, Artea, Areatza eta barriro be Arteatik pasauko dira Ugaon helmugara heldu aurretik. Igaz, Bizkaia-Durango Murias taldeko Alice Maria Arzuffi txirrindulari italiarrak irabazi eban Emakumeen

I. Klasikoa.

Ugaon Txirrindulari Elkartek antolatuten dau lasterketa. Sub23 eta Elite mailakoak 87,8 kilometro egingo ditue, goizeko 11:00etan Ugaotik urtenda. Juniorrak be ordu berean urtengo dira eta 61,2 kilometroko ibilbidea daukie. Kadeteak barriz, 09:00etan urtengo dira 53,2 kilometro egiteko.

Gazteenak Ugaon-Arrigorriaga-Ugaon zirkuituari lau buelta emongo deusiez. Juniorrak, Sub23 eta

Elite mailakoak batera urtengo dira Ugaotik. Sub 23 eta Elite mailakoak, zirkuituan lau buelta emon eta Zeberio, Artea, Areatza, Artea, Ugaon ibilbidea egingo dabe. Juniorrak ibilbide bera egingo dabe zirkuituari 3 buelta emonda.

Hiru herrik hartutako konpromisoa

Lasterketa hau, Amaia Estiballes Zeberioko Udaleko Bardintasun Saileko Teknikariak bultzatu eban eta igaz Zeberion izan eban urtekerea eta helmuga; aurten, barriz, Ugaon. Izan be, lasterketeari egonkortasuna emoteko, Zeberio, Ugaon eta Arrigorriagako Udalak, 2018, 2019 eta 2020 urteetan Emakumeen Klasikoa egiteko konpromisoa hartu eban.

MENDIA

Gorbeia Suzien Mendi Lasterketan parte hartzeako izen emotea bagilaren 1ean zabalduko da



2017ko Gorbeia Suzien Ternua.

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 29an izango da aurten Suzien Mendi Klubak antolatuten dauan Gorbeia Suzien Mendi Lasterketa. Izena bagilaren 1ean 09:00etan hasi eta 5eko 23:59ak arte emon daiteke RockTheSport plataforman.

Dorsalak zozketaren bidez emongo dira. Aurreko urteetan parte hartu dabenai, parte hartutako urte bakotxeko zenbaki bat gehiago emongo jakie zozketarako. Arratian bizi diranak be izango dabe beste zenbaki bat.

Mendi Lasterketa eta Kilometro Bertikala

Modalidade bi dagoz, Mendi Las-

terketa eta Kilometro Bertikala. Mendi Lasterketeak Zeanuriko herrigunetik urtenda, 31 kilometroko ibilbidea dauka eta 2.400 metroko desnibel positiboa. Gitxieneko altuerak Zeanuri da eta altuerarik handiena Gorbeia (1.481 metro). Gehienez 6 ordu eta 30 minututan egin behar da ibilbidea.

Kilometro Bertikala barriz, egun bi lehenago izango da, urri lehenengoaren 27an, hain zuzen be. Distantzia 4,2 kilometrokoa izango da. Zeanuriko herrigunetik urten eta Lekandako tontorrean (1.309 metro) egongo da helmuga. Gehienez ordu bi eta 30 minututan heldu behar da tontorrera.



Emakumeen 2. klasikoa
Ugaon - Arrigorriaga - Zeberio
Ekainak 1

KARABIE GAZTETXEA

Karabie Gaztetxearen 20. urteurrena beteko da aurten eta ospatuten hasiko dira hilaren 17an

Erredakzioa

Jai handia urrietan izango da, baina maiatzaren 17an, Harriketarrak Gazte Asanbladako afaria egingo dabe, 20 urteotako istorioak gogora ekarri eta konpartiduteko. Afalurretik poteoa be egingo dabe.

Hogeigarren urteurrena ospatuteko, maiatzaren 17ko afariatz gainera, "Herrie koloretzatzen" izeneko ekintza dago iragarrita bagilaren 22 eta 23rako eta urri lehenengoaren 21ean, Karabie sariak bananduko ditue "harriketarrak". Gauean "gau galaktikoa" izenpeko jai egongo da Lemoako Gaztetxean.

Urri bigarrenaren 25-26 eta 27an izango da urteurreneko jai handia. Berau antolatuteko bariku eta domeketan batzean dira gazteak.

Txabola baten sortutako Gaztetxea

Lemoako Gazte Asanbladak 1999



urtean sortu eban Karabie Gaztetxea. Harrobian egoan txabola bat hartu eben horretarako eta horregaitik ipini eutsen Karabie izena. Urtebete beranduago erre egin zan txabolea eta harrezkerotik eskolak izandako Udalaren eraikiera aldatu ziran gazteak.

Hogei urte honeetan, Lemoako gizarte eragile aktiboa izan da Gaztetxea, herriko bizitzaren parte.

ANTZERKIA

Umirezko hiru antzezlan Areatzako II. Umirezko Antzerki Erakustaldian

Erredakzioa

AKKBk antolatutako Areatzako II. Umirezko Antzerki Erakustaldiak hiru lan dakar aurten. Aprilaren 12an izan zan lehenengoa, eta orduan, Ramon Agirre eta Inaxio Tolosaren *Putinen guardasola* ikusi ahal izan eben Udal Aretora hurreratutakoak. Oin, maiatzaren 18an, Tartean Teatroak *Tabernaria. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* antzezlan eskainiko dau gaueko 22:30ean Gaztetxean. Eta amaitzeko, bagilaren 7an, 7Grados konpainiak, *Y todo por amor* antzeztuko dau Udal Aretoran, arrastiko 19:30ean.


Tartean Teatroak taberna baterako bakarriketea dakar Areatzako Gaztetxera. Tabernariak

bere ohiko bezeroak konbokau ditu, kaina bat ondo botaten erakusteko. Atxakia bat da, kezak, arregurak, ilusinoak eta desio frustraduak azaleratuteko. Istorioa, atzetik aurrera kontetan da.

Maitasuna aletzen daben testuak

Bagilaren 7an, Itziar Lazkanok

zuzenduten dauan *Y todo por amor* ikusi ahal izango da Udal Aretoran. Antzezlanak, ikusleakaz zirraren zeharreko biajea egin gura dau, publikoaren konplizidatza bilatuz. Maitemintzea, aditu ezina, rol sozialak eta itxaropen faltsuak dira landuten diran gai batzuk.



IKUSKIZUNA

Akrobazia eta antzerki ikuskizuna Lasarte Aretoran

Erredakzioa

Maiatzaren 18an, 19:00etan, Rojo Telon konpainiak, Edume Rodriguez Muroren *Mujeres al rojo vivo* antzezlanen oinarritutako akrobazia ikuskizuna ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora. Ana Clara Cuervas, Begoña Peñaranda eta Maider Yabarrek osotuten dabe Rojo Telon, zirkua eta antzerkia buztartzen dauan konpainia.

Haiek naiz ikuskizunak hiru an-

drazkoren emozinoetatik biaje bat proposatzen dau. Horretarako, ikus-

kizuneko personajeak, aireko elementuak, trapezioa eta oihalak esate baterako, zein zoruko akrobazia eta akrobazia bertikalak erabiliko ditue, irudi esanguratsuak sortuz. Keinu hizkuntza be erabilten dabe, lanak buztartzen dituan zirkua, antzerkia eta poesia jente gehiagori hurreratzeko.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net









ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

LEHIAKETEAK

Anne Gurtubai Belaskok irabazi dau Dimako Jaietako Kartel Lehiaketea

Erredakzioa

Jaietarako karteleko irudia aukeratu tea inoz baino gaxagoa izan dala di-noe Jai Batzordekoak, irudien kalida-dea sano ona izan dalako. Horreen artean, Anne Gurtubairena aukeratu dabe aurtengo jaietako kartelean agertuteko. Lehiaketan parte hartu-tako irudi guztiak liburutegian dagoz ikusgai, astelehenetik eguenera 16:30etik 19:30erako ordutegian.



LEHIAKETEAK

Arantzazuko Jaietako Kartel Lehiaketea

Erredakzioa

Arantzazuko Jai Batzordeak Jaietako Kartel Lehiaketea ipini dau martxan. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 20tik bagilaren 3ra arte izango da. Udaletxean aurkeztu behar dira, sinadura barik. Kartelean, "Arantzazuko jaiak 2019" esaldia agertu behar da. Saria kultura bonoa izango da.

ANTZERKIA

Institutuko ikasleen antzezlanak Igorreko Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Maiatzaren 17an, 19:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan, Igorreko talde bik eta Zornotzako batek ikasturtean zehar prestatutako antzezlan bana taularatuko dabe. Igorreko Baga Biga Higa taldeak Tomas Afan Muñozen *Los impresentables* antzezlan taularatuko dau; Txotx! taldeak barriz, euren sortutako *Txotx!* lana. Zornotzakoak, *Harmonia harmonia* izeneko lana erreprentatuko dabe.

Gai gogorak tratetan ditu Baga Biga Higa taldeak antzeztuko dauanak: indarkeria matxista, fobiak, terrorismoa... Eta adierazpen askatasunaren alde egiten dau, autoironia handiz.

Txotx! taldearen lana barriz, taldekideak eurak sortutakoa da. "Igorren sagardotegi bat zabaldu ten da. Lehiaketa bat egiten dabe eta irabazlea sagardotegiagaz

geratzen da. Lehen sagardotegia eukana jubiletan dan andra bat da eta honek sekretu handi bat gordeten dau", azaldu deutso BEGITU-ri Ismael Pereira, Igorreko antzerki taldeetako dinamizatzaileak.

Lanok hurrengo domekan be ikusteko aukerea egongo da Zornotzan. Aurrerago be, fetxea oindino zehaztu barik egon arren, Igorreko Kiñu Gaztetxean egiteko asmoa daukie Zugan Ni-ko Igorreko taldeak.

Zugan Ni proiektua

Oin dala 12 urte, nerabeak antzerki mundura hurreratzeko Markeliñe Konpainiak Zugan Ni proiektua sortu eban. Ekimen honetan 13 eta 18 urte bitarteko gazteak hartzean dabe parte eta Arratia Institutuko ikasleak osotutako talde bi sortzean dira ia urtero. Ikasturte amaieran, sari banaketea eta proiektuan parte hartu dabenak jaia egiten dabe.

MAIATZAK 11 DURANGO 19:00etan San Agustinen	Jesuitak Kurutzaga Bazabal Kastola
MAIATZAK 17 IGORRE 19:00etan Lasarte Aretoan	Igorre 1 Igorre 2 Zornotza 1 Zornotza 2
MAIATZAK 19 ZORNOTZA 17:00etan Zornotza Aretoan	Zornotza 1 Zornotza 2 Igorre 1 Igorre 2

MUSIKEA

Dimak bideoklip bat grabauko dau Jentiltxu eta Jentiliren kantuagaz

Erredakzioa

Herri Hezitzailearen proiektuaren barruan, 2017an Unidade Didaktiko bat sortu zan eskolameai Dimako inguruak, mitologia eta abar ezetuten emoteko. Unidade hau herriko alkartean laguntzaz sortutako fitxaz osotuta dago. Bertako protagonistak Jentiltxu eta Jentili dira eta eurentzako kantu bat be sortu eban. Abesti horretan oinarrituta, bagilean, herriko alkarteak bideoklip bat grabauko dabe, *Jentiltxu eta Jentili* izeneko. Kantuaren hitzak Ibon Izak eta musikea Kepa Elgoibarrek sortu eban.

Unidade didaktikoaren sorrera lotuta dago Herri Hezitzailearen kontzeptuagaz. Askotan umeak urruneko gauzak ikasi bai, baina bertakoak ez dabezala ezetuten esan eban egileak Unidadea sor-

tu zanean. "Guretik abiatu gura dogu, euskeraz eta gure tradizino eta gure lurraldetik, gero mundura abiatzeko. Hau dana sartzean da Dimesten proiektuan. Lotura dauka herriko alkarte guztiakaz". Bide honetan, datorren hilean grabauko dan bideoklipak beste pausu bat izan gura dau.

Jentiltxu eta Jentili

Proiektu honetarako sortu ziran Jentiltxu eta Jentili personajeak. Hamaika urte inguruko ume "jentilak" dira Jentiltxu eta Jentili, eta, beste superpodere batzuen artean, denporan atzera eta aurrera egiteko daukie. Jentiltxu Barronbarron jaio zan eta Keixako hatxan bizi da. Jentili barriz, Axlorreko harpean jaio zan eta Keixan bizi da. Metrakazulotik sartzean diran baktotxean denporan aurrera eta atzera joan ahal dira.



DUNBA

Kuku egin daiogun udabarriari

Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Liburu baten dago Anbotoko Mari, irakurteak jarten gaitu gu kantari, abestiak deustodaz nik emon aitari, **kuku** egin daiogun udabarriari, liburuak ematen deustodaz amari, irakurteak jarten gaitu gu kantari, gure eskolan dagoan liburu bateri, **keinu** egin daiogun udabarriari, ene umetxo maite ekin zuk lanari, irakurteak jarten gaitu gu kantari,

poza emon deustat nik lehenengo barbari, **mosu** emon daiogun udabarriari, txakurrak esan deutso gure katuari, irakurteak jarten gaitu gu kantari, liburu bat hartuta emon lagunari, **barre** egin daiogun udabarriari, buelta bueltaka gabiz beti papelari, irakurteak jarten gaitu gu kantari, letrak esaten deutso irakurgaiari, **indarra** emon daiogun udabarriari, eskertu behar deustagu guk liburuari, irakurteak jarten gaitu gu kantari, herria eta euskara dira gure txori,

bizitza emon daiogun udabarriari, liburu dekozu itxi orain niri, irakurteak jarten gaitu gu kantari, bertsoak abestean beti bertsolari, **doinua emon** daiogun udabarriari, ipuin bat hartu eta kontau besteari, irakurteak jarten gaitu gu kantari.

Bizitza, doinua, indarra emon daiogun udabarriari, irakurteak jartzen gaitu gu kantari, irakurteak jartzen gaitu gu kantari, **keinu, mosu, barre, kuku** egin daiogun udabarriari!



AGENDEA

MAIATZAK 16

AREATZA

Herrian erroladatutakoak Bono dendak erosi ahal dabez udaletxean hilaren 24ra arte.

BEDIA

16:30etik 19:30era, maiatzaren 24ra arte, "Sellako jeitsiera" urtekerako izena emoteko epea Liburutegian. Urtekera bagilaren 29an izango da.

16:30etik 19:30era, maiatzaren 31ra arte, Udako ludotekan: Ludosport-en izena emoteko epea Liburutegian. Ludosport garagarriaren 15etik, 26ra izango da 3-11 urte bitarteko umeentzat.

16:30etik 19:30era, maiatzaren 31ra arte, Jaietako Paella Egunean parte hartzeako eta jaietan buruhandiak aterateko izen emotea Liburutegian.

IGORRE

Maiatzaren 24ra arte, AEK-k antolatutako Astegoieneko Barnetegian izena emon daiteke Kubulu Euskaltegian.



Maiatzaren 28ra arte, *Frankenstein* edo *Prometeo modernoa* serigrafia erakusketa.

LEMOA

Maiatzaren 17ra arte, udalekuan izena emoteko epea zabalik Udal Liburutegian edo webgunean.

11:00etatik 14:00etara, maiatzaren 24ra arte, jubilatuen biajean izena emoteko epea zabalik udaletxean. Biajea Tenerifera izango da urri lehenengoaren 27tik urri bigarrenaren 6ra arte.

Maiatzaren 24ra arte, bagilaren 1ean izango dan Euskal Jairako txartelak salgai udaletxean.

Bagilaren 3ra arte, Lemoako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea, udaletxean.

Bagilaren 28ra arte, Lemoako XXII. Artisautza Azokan izena emoteko epea, udaletxean.

ZEBERIO

Añanako Gatz Haranera txangoa. 08:45ean, Ermitabarrin; 08:50ean, plazan; 08:55ean, Arkulandan eta Santa Kurtzen. Gure Indarra Jubilatuen Elkarteak antolatuta.

MAIATZAK 17

IGORRE

19:00etan, Zugan Ni antzerki topaketak Lasarte Aretoan.

LEMOA

16:30ean, Udalak antolatuta, haur bilera: "Zelango udalekuak gura doguz?". Eskolan.

Karabie Gaztetxearen 20. urteurrena dala-eta, Harriketarrak bilera, sorpresak

eta afaria Gaztetxean.

ZEANURI

19:00etan, Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatuta, Arratia Kantuz eta Kantu-afaria Niko Etxart-egaz Kultur Etxean.



MAIATZAK 18

ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak antolatuta, urtekera Zeanuriko inguruera.

AREATZA

Areatzako II. Umorezko Antzerki Erakustaldia. 22:30ean, Tartean Teatroak *Tabernaria. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* Gaztetxean.

DIMA

08:30ean, Udalak eta Zamakola alkarteak antolatuta, Dimako auzuneak ezagutz mendia martxea. Zamakola alkarte-Zumeltzara autobusez-Altunpe-Barazar-Saldropo-Otzarretako pagadia-Ubide autobusa hartu-Ugarana autobusez. 12 kilometro. Ugaranako autobus geralekuan.

16:00etan, Bola Joko Txapelketa. Komarkaleko botaldia Artaungo bolalekuan.

IGORRE

19:00etan, Rojo Telon konpainiaren *Haiek naiz* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekera. Katillotxu (336 metro).

MAIATZAK 19

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, mendi urtekera gidatua Itzinako toponimia ezetuten, Felix Muguruza adituaren eskutik.



Xahu, jazz musikea Lasarte Aretoan

Xahuk, maiatzaren 24an eskainiko dau bere emonaldia 21:00etan, Lasarte Aretoan.

Musikenen alkar ezetu eben musikari batzuk osotuten dabe Xahu: Josu Salegik (saxo altua), Mikel Nuñezek (pianoa), Jon Ander Amigok (baxua), Unai Olabarrak (bateria) eta Irati Bilbaok (abotsa). Lau musikariok Donostian jazz ikasten eben bitartean, hainbat proiektu konpartidu eben. Gero, norbera bere ibilbidetik ibili ondoren, Xahu proiekturako batu ziran, lagunaren artean musikea sortzeako grinak bultzatuta.

Errepertorian jatorrizko piezak daukiez. Be-bop, hard-bop eta egungo jazzaren eraginak batzean ditu Xahuk.

Ibilbidea Lamino Kirol Klubagaz eginda, zailtasun handikoa. Izena *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan emon.

IGORRE

17:00etan, zinea *Mia y el león blanco*; 19:30ean, *Gracias a Dios* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, Elkartrukekoak antolatuta, Bigarren Eskuko Azokea Axtetako arkupetan.

MAIATZAK 20

ARANTZAZU

Bagilaren 3ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke udaletxean.

AREATZA

Herrian ez dagozanak erroldatuta Bono dendak erosi ahal dabez udaletxean hilaren 24ra arte.

MAIATZAK 21

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, Udalak antolatuta, Zainduz Programearen jarduerak, mendekotasun bat daukienez senide zaintzaileentzako *Mindfulness* tailerra, Josefina Fernandez psikologoaren eskutik, udaletxean.

MAIATZAK 22

DIMA

17:30ean, Txumuluxueta alkarteak lehenengo aldiz antolatutako mitologiari buruzko Ipuin eta Marrazki Lehiaketaren sari banaketea. Ostein, Maite Franko ipuin kontalaria *Euskal irri eta orroak* saioa.

ZEANURI

09:15ean, txangoa Añanako gatz haranera; 10:30ean, kopaua; 11:30ean, bisita gidatua; 14:00etan, bazkaria; 17:00etan, Santa Katalina lorategi botanikora bisita. 25 euro. Izena emoteko atzen eguna maiatzaren 16a. Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatuta.

MAIATZAK 23

ARTEA

Arratiako Berbalagunak antolatuta. Ezti kata eta ortugintza. Aner Mimenzaren baserrira bisita. Izena 607 631 916 telefonoan edo

arratia_berba@aek.eus helbidean emon.



DIMA

19:00etan, berbaldia *Zugarramurdi: sorginetik sorginkeriarat* Zugarramurdiko Koro Irazokiren eskutik. Jubilatuen lokalean.

MAIATZAK 24

LEMOA

Udalekuetako zerrendak argitaratuko dira. Ludotekea, "Kalea hartuz".

MAIATZAK 25

BEDIA

10:30ean, herritik urtekera, *Txorien kutxabiak eta zuhaitzak ezagutzen* jarraipena. Udalak antolatuta eta Olate Arrartek eta Fernando Ruizek gidatua.

DIMA

Jentilak Diman. 12:00etan, *Irrintzi* tailerra Vanessa Sanchez-en eskutik: 18:30ean, Ibilbide mitologikoa Indusiko Zamakola zubitik urtenda. 21:30ean, Akelarrea Indusin.

IGORRE

10:30ean, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Morea eta grisa: zahartzarora feminismotik eraikitzen*. Kultur Etxean.

17:00etan eta 20:00etan, zinea *Soinujolearen sementa* Lasarte Aretoan.



LEMOA

Larrabeitiko jaiak. 10:00etan, txupinazoa; 11:00etan, hamaiketakoa: txorizoa, urdaiazpikoa, gaztaia... 12:00etan, umeentzako jolasak (soka-tirea, txingak...); 13:00etan, Igel Txapelketa; 15:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak; 18:00etan, jantzaldia.

MAIATZAK 26

BEDIA

17:00etatik 18:15era, Belaunaldien arteko truke programea Bediako Nagusientzako Etxean. 13-22 urte bitarteko gazteak. Jandonizen.

MAIATZAK 27

AREATZA

Bagilaren 28ra arte, Bono dendak erabili ahal dira.

ARTEA

Bagilaren 14ra arte, udalekuetarako izena emon udaletxean. Udalekuak bagilaren 24tik garagarriaren 5era arte, edo garagarriaren 8tik 19ra. 4-14 urte bitarteko umeentzat.

MAIATZAK 29

BEDIA

17:30etik 18:30era, Liburu-maleta ibiltaria 3-11 urte bitarteko umeentzat Onditz Mendizabalen eskutik liburutegian.

ZEANURI

18:30ean, *Barreterapia* berbaldia. Jubilatuen txokoa. Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatuta.

MAIATZAK 31

AREATZA

Musik and Beer. 17:00etan, Kaixoren eskutik txokolate eta kafe dastaketa eta salmentea erreka pasealekuan Paul San Martin Trio musika taldeak girotua; 19:00etan, Mississippi Queen & The Wet Dogs; 20:30ean, Los Brazos; 22:15ean, Keylock; 24:00etan, Eskean Kristó.

ARRATIA

Hilaren 2ra arte, Asteburuko Barnetegia AEK. Igorreko Kubulu Euskaltegian.

LEMOA

Ludotekea "Kalea hartuz".

BAGILAK 1

AREATZA

Musik and Beer. 12:00etan, garagardao (Beerbao) eta gaztai maridajea erreka pasealekuan; 13:00etan, bermut eta gilda (Destilerias Atxa) maridajea erreka pasealekuan; 13:30etik 15:30era, musikea herrian zehar EuskOrleans Dixie Band taldeagaz; 16:00etan, Destilerias Atxako Rudaina Jaber Carballo prestatutako konbinaduen maridajea; 17:00etan, Munduko III. Garagardao Kupelen Jaurtiketa Lehiaketa; 18:00etan, James Room & Weird Antiqua; 20:00etan, The Soul Jacket; 22:00etan, Jared James Nichols; 24:00etan, The Riff Truckers. Egun bietan, antolakuntzeak udaletxeko arkupetan ipinitako janari stand-a eta Bilbo Dulceren postreak egongo dira.

LEMOA

Euskal Jaia. 13:00etan, poteo musikatua Kresala tabernatik hasita; 15:00etan, bazkaria eskolako aterpean.

ZEANURI

Bagilaren 5era arte, Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketarako izen emotea RockTheSport plataforman.

09:30ean, mendi ibilaldia. Plazea (kotzez)-Barazar-Altungana-Zumeltza (hamarretakoa)-Barazar. Sagarna portalean. Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatuta.

BAGILAK 2

ARRATIA

Maratoi Txikia. Ikusi 15. orrialdea.

IGORRE

09:30etik 14:00etara, Ardi-txakur alemaniar Lehiaketa. Umeentzako jolasak. Agirre Lehendakaria kaleko parkean.

UBIDE

Ubideko Bira. 07:30ean, izen emotea, 08:30ean, urtekera Ubideko plazatik. Bira egin ahal izateko baimen zain dagoz antolatzaileak.

ZEBERIO

11:00etan, Gorbeia Euskadik antolatuta, "Zeberioko altxorak" bisita gidatua.

AKIKMIKO

Kailoren



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baserri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m² ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot,

Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabilzan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Haiek naiz* ikuskizunerako.

Milagros Lejarza (Zeanuri)
Isaak Atutxa (Arantzazu)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Xahu taldearen emonaldirako.

Jagoba Aldape (Igorre)
Sebas Angoitia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 678 64 25

begitu
anaitza alaba olerki

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietza, s/n. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 530 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tf: 94-673-70-87
Tf: 609-79-49-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

begitu
arratia ubide zeberio

Apunta Zaitetz!
📞 94 673 91 16

ZULAIBAR
ARRIATAKO LANBIDE BAZTEGIA

Goi Mailako Zikloak	Fabrikazio mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
Erdi Mailako Zikloak	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta Instalazio elektrikoak eta automatikoak Mekanizazioa
Oinarriko Lanbide Heziketako Zikloak	Instalazio elektroteknikoak eta mekanikoak Elementu metalikoen fabrikazioa

afara zure talentoa

LAN-MUNDUA

UNIBERTSITATEA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

BACHELERRGOA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

D.B.H.

OINARRIKO LANBIDE HEZKETA

ZERGAITIK L.H.?

%89 LANERATZEA

Gure heziketa zikloetan %89 baino gehiagoko tituludunak lortzen hasita

IKAS + LAN EGIN

FORMAKUNTZA DUALA

Formakuntza Dualaren ikasle kopuru handia Ikasi + lan - kontratua

2019 2020 2021

KONTRATAZIO BEHARRIZANA

Enpresen kontratazio beharizanak datozen urtetarako

ZERGAITIK ZULAIBAR?

ERDI MAILA + BACHELARR 47%

UNIBERTSITATEKO BACHELARR 27%

BACHELERRGOA 11%

LEHEN HEZKUNTZA ETXEBEH 10%

BEHE HEZKUNTZA 5%

Aurrematrikula 2019-2020
Ekainaren 3tik-14ra

Ate irekien jardunaldiak
Maiatzak 29 eta ekainak 6an 18:00etan

Zulaibar Auzoa 17
48144 Zeanuri (BIZKAIA)
Tel. 94 673 91 16
www.zulaibar.org

Erasmus+
Praktikak atzerrian

urratsbat
Sortu zure enpresa

ETHAZI
Aktibo-kolaboratibo metodologia

Fp
dual
Ikasi eta lan egiteko aidi berean